

Gomendatutako liburua.

-Carrá, Carlo. "Pintura metafísica". El Acantilado. Barcelona. 1999.

PINTURA METAFISIKOA

Lehen Mundu Gerran zehar, Italiako futurismoaren lehendabiziko krisialdia gertatu zen, mugimendu nazionalisten eta inperialisten igoerarekin batera. Nazionalismo horien ideologia jatorri klasikoan finkatzen da. Italiako estetika klasiko honen berreskurapenak bi ildo zituen: batetik Novecentoa bestetik pintura metafisikoa.

Giorgio De Chiricok eta Carlo Carrak pintura metafisikoaren mugimendua sortu zuten. Haien lanetan Italiako hiri idealizatueta plaza onirikoak, estatua klasikoak, trenak, manikiak eta objektu gainjarriak pintatu ohi zituzten. Mugimendu honetan inkontzienterekin erlazionaturiko irudiak errepresentatu zituzten, dadaismoan eta baita surrealismoan erabilitako irudi-eremuak sortu ere.

Pintura metafisikoak alemaniar jatorri sinbolistaren eragina erakutsi zuen aldi berean, joera filosofiko batzuek ere bere baitan hartu zuten parte: Husserlen eta Heideggerren fenomenologia eta esistentzialisten objektibitatea (Sartre, Camus).

Carrak bere iragan italiarra berreskuratu bitartean, De Chirico eguneroko munduaren balio misteriotsuak ikertu zituen. Hau da, euren testuinguruz kanpo zeuden eguneroko objektuak aztertzen ziren, hurrengo ezaugarriak azpimarratuz: balore fisikoak, espazioarekiko harremanak eta objektuen arteko erlazioak. Aurreko elementuen gainetik objektuen sinpletasuna bilatzen zen, baina, aldi berean, objektuen barneko balio izkutuak, horregatik errealitate ilogikoa errealitate erreal bihurtzen zen. Objektuak edota eraikinak margotzen ziren denboraz urrun baleude.

Ondo disenatuta zegoen eszenarioetan irudien, objektuen eta ekintzen irudikapen misteriotsuak ikus daitezke. Aurreko ezaugarri hori Chiricoren lanetan agertzen da askotan, horregatik artistaren interesa gehienetan irudi baten itzalean zegoen.

Carra bai futurismoarekin bai mugimendu honekin erlazionatu zen bitartean, De Chirico Parisetik zetorren, Apollinaire eta bestelako artista abangoardisten mirespena lortu ondoren. Alberto Savinio poetagilearen bidez aurreko artista horiek elkartu ziren. Sortzaile hauen atzetik beste batzuk agertu ziren, adibidez, Giorgio Morandi eta Filippo De Pisis.

GAIARAKO ARTELAN INTESGARRIAK

GIORGIO DE CHIRICO

- “Orduaren enigma” (1912)
- “Dorre handia” (1913)
- “Poetagilearen ziurgabetasuna” (1913)
- “Filosofoaren konkista” (1914)
- “Udazkenako malenkonía” (1915)
- “Musa arduragarriak” (1916)
- “Barrualde metafisikoak” (1918)
- “Hector eta Andromaka” (1917)

-“Villa erromatarrak” (1922)

CARLO CARRA

- “Idolo hermafrodita” (1917)
- “Ama eta umea” (1917)
- “Eraikitzailearen semea” (1917-1921)
- “Ingeniariaren amorantea” (1921)
- “Itxarotea” (1923)

GIORGIO MORANDI

- “Paisajea” (1911)
- “Natura hila” (1918)
- “Natura hila” (1919)